


Ibilbide honi Presazelai jolasgunean emango digu hasiera (1). Jolasgune hau Dimaren hegoaldean kokatuta dago. Otxandio udalerrian hain zuzen ere. Lurrezko mendi-bidea hartuko dugu eta Otxandioko tuboi-zelatik 100 bat metrora igaroko gara. 500 bat metro ibili ondoren, (2) PR-BI-44 Ibilbidearekiko bidegurutzea helduko gara. Bertan, eskuinetara jotzen badugu, Azpikoarriantz abiatuko gara. Nolanahi ere, oraingo honetan ibilbide honen kontrako norabidea hartu eta Montebideo ibaiaren gaineko zubia zeharkatuko dugu.

Hurrengo bidegurutzean, eskuinetara utziko dugu Zumelzaik datarren ibilbidea, eta ezkerretatik gorantz egiten duen ibilbidea hartuko dugu. Mendi-bide honek altzifreak dauden alde batera eramango gaitu. Bertan beste bidegurutze bat aurkituko dugu, baina bidegurutze hau ez da hain argia izango, hiru aukera eskaintzen dizkigulako. Oraingo honetan erdialdetik doana aukeratuko dugu, eta gainaldera iristalakoan, ezkerretara joko dugu. Mendi-bide honek gurpil-arrasto sakona duen beste mendi-bide batera eramango gaitu, eta ezkerretara joko dugu.

Hartzintzarretik beste mendi-bide bat aurkituko dugu. Mendi-bide hau Barazarretik dator eskuinaldetik. Izan ere, PR-BI-5 (3) Ibilbidea da eta honi lotuko gaitzaitziko ezkerretatik. Barazar mendatea eta Otxandio lotzen dituen errepeida zeharkatu eta aurrez aurre dugun mendi-bidetik jarraituko dugu. Ibilbidea egiten hasi garenetik, ordubete behar izan dugu leku honetara iristeko.



Dimolegagin ingurua



Aldata honetatik bi kilometro (4) egin ondoren, eskuinetara dagoen bihurgunee batean, ezkerretara dugun beste mendi-bide bat hartuko dugu. Mendi-bide honek behearantz egiten du. Azken mendi-bide hau bidegurutze batean amaitzen da, eta zementatutako beste mendi-bide bat aurkituko dugu bertan. PR-BI-5 (5) Ibilbideak Saldropoko zingirara eramango gaitu, Barazar mendateko errepeida zeharkatzen badugu. Leku honetatik aurrera, interpretazio-taulak aurkituko ditugu. Taula hauek lagungarri gertatuko zaizkigu Dimolegagin gainaldera igozteko orduan. Bertan (6) forestalisten omenez eraikitako monumetua aurkituko dugu. Ibilbide honi ekin diogunean, 7 kilometro egin ditugu, eta ordubete eta 45' behar izan ditugu hona iristeko.

Bertatik, beiti joango gara behearantz mendi-bide honetatik jarraituta. Era berean, alde honetako baso-inguruneko interpretazio-tauliez gozatzeko aukera ere izango dugu. Alde hau Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du 1929. urteaz geroztik, eta zenbait espezieri buruzko ikerketak burutu ditu. Honen ondorioz, baso-olde paregabea ikusteko aukera izango dugu. Izan ere, mundu zabaleko zientzilaria ugari bertaraten dira alde hau mirestera.

Barazar-Otxandio errepeidera itendakoan, (7) errepidetik jaitsiko gara, harik eta Presazelai jolasguneko pagadi dotorerara iritsi arte (1). Horrela, ibilbideak dituen 10 kilometroak egingo ditugu bi ordu eta erditan.

